


Gure negozioia ondo joateko hainbat jarduera mota egin ditzakegu, baina bakarrik aztertuko ditugu garrantzitsuenak. Hauek dira: planifikazioa, gure proiektua planifikatu aurrera jarraitzeko adibidez erabiliko ditugun materialak: Elikagaiak, Egurra eta horrelako materialak; langileen betebeharrak, hau da, langile bakoitzari betebeharrak jarri ondo ematen zaionaren arabera eta txarrenak direnak hartan hobetzen lagundu; komunikazioa ere egingo dugu eta hori oso garrantzitsua da langileak nola dabilen proiektua jakiteko eta gainera langileen arteko harremana ona izatea garrantzitsua izango lirateke horrela egingo duten lana efizienteagoa eta hobegoa izango da. Hau guztiarekin lortuko dugu gure proiektua bide ona hartzea eta negozioa handiagoa egitea.



Era berean, denboraren kudeaketa, hau da, egutegi baten prestaketa eta gauza bakoitzerako epe errealistak jarri proiektua eraginkorragoa izateko; arriskuen ebaluazioa, aurkitu zein izan ahal den oztopo edo arazo bat gure proiektuarentzat eta honekin amaitu edo ahal bada normalean arazo txikiak izango direnetan irtenbideak bilatu, ez izateko arazo bat baizik eta gure enpresaren sail garrantzitsuenetako bat gure hobekuntzaren bidez; malgutasuna, garrantzitsua da ikustea noiz moldatu behar garen gure proiektuari ondo etortzen zaionean, ez bakarrik guretzat egokia izateko baizik eta gure bezeroentzat edo langileentzat; bilerak, asko egiten saiatuko gara ikusteko eta hitz egiteko proiektuaren eboluzioari eta momentu horretako egoerari buruz.



Baita ere, aurrekontuaren kudeaketa, ikusi nola doan proiektuan erabiltzen den aurrekontua eta erabili efizienteki behar ditugun materialak eta azkenik, ebaluazio jarraitua, ebaluatuz behin baino gehiagotan nola doan proiektua eta agian hau bilerekin elkartuko dugu. Hau guztia kontuan hartuz, proiektua arrakastatsua izateko probabilitate handiak egongo dira.



Gure enpresaren jarduera zerbitzuen prestazioa da zeren guk saltzen ditugun produktuak iraugitzeko gertu daudenak. Aldi berean, gure enpresa sortu zen guk zerbitzuak emateko errekurto gutxi dituzten pertsoneri; hortaz, prezioak merkeak dira. Izan ere, produktuen salmenta bat egiten dugunez irudi daiteke gure jarduera ekoizpena dela, baina beste dokumentu batzuetan esan dugun bezala gure produktuak beste marka batzuek ekoiztuko dituzte; azpikontratazio baten antzekoaren bat egiten dugula esan daiteke. Ez daude gu bezalako enpresak eta horregatik ezin dugu adibide onik eman. Izan ere, antzeko gauza bat da supermerkatu normalak egiten dutena, 1. eta 2. sektoreko pertsoneri erosten dizkiete produktuak gero haiek saltzeko.

